


Gipuzkoako
lokotx-biltzailerik
azkarrena da
Eneko Garmendia ▶ 5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Osteguna ▶ 2007-09-20 ▶ V. urtea ▶ 1.240. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Jokin Bildarratz izango da Eudeleko zuzendari berria

TOLOSA ▶ Atzo egin zuen elkarrekin urteko batzarra zuzendaritza berria hautatzeko helburuz

ERRONKA ▶ «Konpromiso berriaren aurrean ilusioz beterik nago», azaldu zuen Tolosako alkateak ▶ 3



Jokin Bildarratz Jokin Bildarratz Karmelo Sainz de la Mazak makila eman zion unea, atzoko ekitaldian. E.MORENO



NAIARA GARZIA

JUAN BAUTISTA IRAZOKI ▶ LEITZAKO BIKARIOA

«Beste edozein bezala, apaizak gizakiak gara»

18 urtez Leitzako apaiz izan ondoren, herria utziko du Juan Bautistak ▶ 7

TOLOSA ▶

Alde Zaharreko festa, hilaren 29an

Buruhandiak, afaria, dantzariak... ▶ 2

IZASKUN
OINETAKOAK
GAUR
inaugurazioa 18:00etan
Santiago kalea, 2 • Villabona

Kale Nagusia 45
943 247 469

o'baba
Razioak, otartekoak eta pintxoak

TOLOSA ▶ ASIA

Alde Zaharreko festa estreinakoz ospatuko da hilaren 29an

Alde Zaharra Dendak eta Ezpeleta elkarteak antolatu dute; buruhandiak, dantzariak, txaranga eta afaria izango dira



Alde Zaharra Dendak eta Ezpeletako kideak aurkezpenean. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Udazkenaren etorrerarekin batera, eskualdeko herri gehienetako festak amaitzen badira ere, aurten hitzordu berria dago urtaro honetarako. Lehendabiziko aldiz, Udazkeneko jaia antolatu dute Tolosako Alde Zaharrean. Ekimen hau Ezpeleta ostalarien elkarteak eta Alde Zaharra Dendak elkarteak elkarlanean prestatu dute, Udalaren eta beste zenbait herritarren laguntzarekin.

Lehen edizio honetan, festa egun bakarra izango da, dena den, Pedro Tolosa, Ezpeleta elkartearen lehendakariaren esanetan, «aurrera begira, hurrengo edizioetan agian egun gehiago izango dira». Bestalde, aurten hilaren 29an izango da Udazkeneko jaia. Antolatzaileen esanetan, hasiera batean irailaren 13an, edo inguruko egunen batean ospatu nahi zuten festa, baina prestatzeko denbora gutxi izan dutenez, atzeratu egin behar izan dute. «Kontuan hartu behar da, irai-

laren 13an, Tolosa hiribildu izendatu zeneko urteurrena ospatzen dela».

Egitarau zabala

Udazkeneko jaiarako antolatutako ekitaldien baitan, «adin guztietako jendearentzako ekitaldiak» prestatzen saiatu direla azaldu zuten atzo aurkezpenean, antolatzaileek. Honez gain, Alde Zaharrean bizi direnentzat ez ezik, edozeinentzat da festa, nahi duen guztiak har dezake parte bertan.

Ekitaldi jendetsuenetako bat herri afaria izango da, hau Zerkausion izango da. Divinus catering-en eskutik, jaki eta plater oso goxoak dastatu ahal izango dira 30 euroren truke. Afarirako txartelak erosi nahi dituenak, Kiaran, MO2n, Ayerza mertzerian, Orbelan edo Erretengibelen egin dezake.

Afariaren ostean THC talde iruindarraren kontzertua izango da Plaza Berrian, goizaldera arte. Eta hauen ostean DJak, festarekin jarraitu ahal izateko.

EGITARAUA ▶

HILAK 29, LARUNBATA

10:00. Diana, dultzainero eta txalapartariekin.

10:00. Arku-tiro erakustaldia Armeria Plazan.

11:30. Haurrentzako entzierroa. Plaza Berrian hasi eta Plaza Zaharrean amaitu.

12:00. Buruhandi eta Erraldoien konpartsa eta Bonberenea Txaranga Plaza Zaharretik abiatuta.

12:30. Hamaketakoa Plaza Zaharrean.

14:30. Parte-hartzaileen bazkaria Berdura Plazan.

18:00. Tolosako buruhandi eta erraldoien kalejira.

19:00. Konpartsaren egurra eta haur-jaialdia Plaza Zaharrean.

19:30. Udaberriren saioa Gorriti plazan.

20:00. The Jones brother's txaranga.

21:15. Herri-afaria Zerkausion.

23:30. THC Plaza Berrian.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Jabier Muguruzak azken diskoa aurkeztuko du

Gaur ariko da 22:30ean, Fronton Kafetegian



Jabier Muguruza, Angel Unzu eta Mireia Otzerinjuregi jotzen. HITZA

E. EZEIZA

Aitzol Udal Euskaltegiaren 25. urteurrenako ospakizunaren baitan, kontzertu berezia izango da gaur 22:30ean, Fronton Kafetegian. Jabier Muguruza musikari ezaguna, Anjel Unzu gitarristarekin eta Mireia Otzerinjuregi abeslariarekin ariko da gaur gaueko emanaldian. Saioa dohainik izango da joan nahi duen ororentzat.

Gaurko zuzenekoan azken diskoa aurkeztuko du irundarrrak. Abenduak 29 izeneko lana 2005ean Katarain estudioetan grabatu zuen.

Bakarleri gisa 94an hasi zen lanean Jabier Muguruza, eta hau, bere bakarkako zortzigarren lana da. Berarekin batera aritu dira Angel Unzu eta Mireia Otzerinjuregi. Diskoan kolaboratu zuten Jorge Drexler eta Itziar Itufo.

GIZARTEA ▶



Hasi dira mugikortasunarekin lotutako antzerki emanaldiak

E. Ezeiza ▶ Mugikortasun Iraunkorraren Asteko ekitaldien baitan, gai honekin harremana duen antzerki saioa izan zen atzo Villabonako Fleming ikastetxean. Bestalde, gaur 18:00etan, bizikleten txekoia egingo dute Anoetan. Ibarren, garraiobideen arteko apustua izango da: bizikletaz, oinez eta autoz, erosketak Ibarako kaleetan zehar nork lehen bukatu. HITZA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

POLITIKA ▶

Jokin Bildarratzek zuzenduko du Eudel datozen lau urteetan

Atzo egin zuten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Euskal Udalen Elkarteak batzarra zuzendari berria hautatzeko

IÑIGO TERRADILLOS

Urteko batzarra egin zuten atzo eguerdian Bilboko Euskalduna Jauregian, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Euskal Udalen Elkarteak (Eudel), eta presidente berria hautatu zuten bertan, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, hain zuzen ere. Guztira eman zituzten 700 botoetatik 666 jaso zituen berak zuzentzen zuten hautagai-zerrendak.

Bizkartzainekin dabiltzan hautetsiekiko «konpromisoa» agertu zuten tolosarrak, Karmelo Sainz de la Maza (EAJ) Eu-

deleko aurreko lehendakariak *makila* eman zion uanean. Bildarratz 2003. urtetik Tolosako alkatea da, eta Eudelen aurreko zuzendaritzako kidea ere bazen; horretaz gain, Gipuzkoatik Espainiako senatari ere izana da.

Aurreikuspenak bete ziren, beraz, atzoko batzarrean; izan ere, EAJ, PSE-EE eta EA alderdiek osatutako eta Jokin Bildarratzek zuzendutako hautagai-zerrenda baino ez zen aurkeztu behar hasieran, baina azkenean, Ezker Batuak bere hautagai-zerrenda aurkeztu zuen. Botoak kontatzerako orduan,

700 botoetatik, 666 izan ziren lehen zerrendarentzat. Hala, hamabost kidek osatzen duten agintaritzan, EAJK bederatzik ordezkaritza izango ditu, PSE-EEK bost eta EAK 1. PPK galdu egin du lehen zuten ordezkaritza, Alfonso Alonso Gasteizko orduko alkatea zen PPren kidea Eudelen.

Bestalde zuzendaria hautatzeaz gain, zuzendaritza berria ere aukeratu zuten; lehen lehendakariordea Tontxu Campos Barakaldoko PSE-EEko alkatea izango da, eta bigarren lehendakariordea Pablo Isasi Amurrioko EAKo alkatea.

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA

«Ilusioz beterik nago konpromiso handiko lan berri honen aurrean»

Karmelo Sainz de la Maza jeltzalea izan da orain arte Eudelen zuzendaria, baina aurreantzean, Jokin Bildarratzek (Tolosa, 1963) beteko du bere lekua. «Ilusioz, baina kezka apur batekin» hartu du konpromiso berria.

Esperotako unea izan arren, nola izan da 'makila' hartzearena?

Espero genuen, bai, baina hala ere, oso gustura nago, oso polita izan baita ekitaldia. Aurreantzean Eudelen baitan dauden alkate eta udaletxeen ordezkaritza izango nahiz erakundeen aurrean, lan handiagoa izango da, konpromiso handikoa, baina ilusioz beterik ekingo diot.

Zein izango da zure lana Eudelen zuzendari bezala?

Ordezkaritza eta koordinazio lana izango da batik bat. Gaiak Legebiltzarrera eztabaidatzea eman aurretik guk aztertzen ditugu lehendabizi, horrela, aurrez udaletxeekin adostuta doaz. Horretarako, zuzendari-tza batzordea hilean behin bil-tzen da.

Aurreko zuzendariak emango zizun postuaren berri.

Karmelo Sainz de la Mazarekin



Jokin Bildarratz eta Karmelo Sain de la Maza, atzoko ekitaldian. E.M.

erlazio ona dut, eta badakit bere laguntza osoa izango dudala. Aholku batzuk ere eman dizkit dagoeneko.

Tolosako alkate izatearekin nahikoa ez, eta orain Eudelen zuzendari.

Bai, baina niretzat lehentasun osoa Tolosa izango da. Bi konpromisoak bateragarri egiten saiatuko naiz.

Politikari dagokionez, zein unetan zaudela esango zenuke?

Momentu honetan lan handia egiteko une batean nagoela esan behar dut. Alde batetik Tolosako udaletxeko lana dago; oso gustura sentitzen naiz bertan, nire bizitzan gertatu zaidan gauzarik politena da. Bestalde, Eudelen zuzendari izatearena dago, eta horrek bertan sarturik dauden 251 udaletxe ordezkatzea esan nahi du. Ardua handia da, eta horregatik apur bat kezkatuta nago. ◀

KULTURA ▶

'Lapur zuloa' antzezlana bihar ikusgai, Leidorren

20:00etan hasiko da ikuskizuna; komedia beltza, garratza eta atsegina batzen ditu



Lapur zuloa antzezlanoa une bat. HITZA

I. TERRADILLOS

Komedia beltza eta samurra, garratza eta atsegina. Ezaugarri horiek biltzen ditu bihar Leidor aretoan ikusgai izango den *Lapur zuloa* antzezlana. Aitzol Udai Euskaltegiaren 25. urteurrenaren harira antolatutako Kultur Astearren baitako antzerkia 20:00etan hasiko da, eta sarrearak Servikutxa, www.kutxa.net edota Telekomun eskura daitezke.

Stephen Adly Guirgis egile den antzezlana honetan, aktore aski ezagunek hartzen dute parte, Kontxu Odriozola, Asier Hormaza, Joseba Apaolaza, Itziar Ituño, Kandido Uranga, Patxi Barco, Asier Sota, Ainhoa Aierbe eta Ainhoa Garaik, hain zuzen ere. Zuzendaria, berriz, Carlos Zabala da.

Obsesioak jotako lau pertsonaiaren bizitzak gurutzatuko dira antzezlana honetan. Mota guztietako terapiak probatu dituzte: jateari uzteko, erretzeari uzteko, lapurtzeari... Eta arazo horiek burutik kendu ezinik dabilta guztiak. Halako batean, lapurretara erraza egiteko aukera agertzen zaie, eta terapia guztiak ahaztuta, anbizioak itsuturik, prest daude laurak lapurretara elkarrekin egiteko, horrek behin betiko erretiratuko dituelakotan. «Dirua bai terapia ederra!». Lapurretako dirua, ordea, Mafiarena da. Mafiak bizkor harrapatzen ditu gure pertsonaiak eta lauretako ba-

EZAUZARRIAK ▶

Antzezlana. *Lapur zuloa*.
Egilea. Stephen Adly Guirgis.
Zuzendaria. Carlos Zabala.
Aktoreak. Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza, Ainhoa Aierbe eta Asier Hormaza.
Eguna eta lekua. Bihar, 20:00etan, Leidorren.
Txartelak. 10 euro.

ten heriotza eskatzen du. Horrek gogoeta egitera daramatza: zer galduko luke munduak bakoitzaren heriotzarekin? Hala, une batez seriotasun printze betetzen da lapur zuloa; baina, luze gabe umorezko haize-boladak amaiera samur eta dibertigarria ematen dio abenturari.

Amateria dibertigarri hori jakiteko, ordea, antzezlana ikusi beharko da. Umorea ziruratuturik izango da, beraz, Leidorren, bihar gauean.

TOLOSALEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Hauxe da gure webgunean proposatzen dizugun gaia zure iritzia eman dezazun: «Lizartzan bandera espainola jarri zuten udaletxean herriko jaietan. Zer iruditzen zaizu?» sartu eta eman zure iritzia gai honen inguruan! ▶

IRURA ▶ JAIKAK

EGITARAU ▶

BIHAR

19:30. Jaien hasiera: aldarria, suziria eta herensugea ateratzea txalaparta hotsekin. Ondoren, kalejira buruhandi eta erraldoiekin eta Bonberenea txarangarekin. **21:00.** Barrikotea Bonberenea txarangak alaitua plazan. **24:00.** Dantza-piko saioa Patxi ta Konpainia taldearekin.

ETZI

Haur eta Gazteen Eguna

09:00. Gazte Festako taldearen irteera plazatik kale eta auzoetara trikitilari eta dultzainajolez alaitua. **10:40.** IV. Erniopeko Txirindulari Bira pasako da Iruratik. Villabonan bukatuko da hamaiketakoarekin.

11:30. Marrazki lehiaketa plazan.

13:00. Apar-festa plazan.

14:00. Gazteen dantza-soka plazan.

14:30. Haurren bazkaria plazan.

14:30. Gazteen bazkaria Aizpurua jatetxean.

15:30. Haurrentzako ludoteka eta tailerrak Trinketean (9 urte arteko haurrentzat).

18:00. Gazteentzako zezen mekanikoa Labadero plazan.

18:00. Pirritx eta Porrotx pailazo taldearen *Mari Motots* ikuskizuna Loatzo Plazan (frontoian euria eginez gero).

20:00. Sagardo dastaketa plazan (frontoian euria bada).

21:00. Gazteen afaria Zaharren Biltokian.

24:00. Rock kontzertua Koma eta Zea Mays taldeekin plazan.

24:00. Trio Jalisco Mexikoko folk taldea Labadero plazan.

IRAILAK 23, IGANDEA

11:00. Meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokia eraberrituan.

12:30. Gorritiren abereak plazan.

17:30. Irurako eta inguruetak dantzari-bikien saioa plazan (euria eginez gero frontoian).

19:00. Herri Kirol jaialdia plazan. Aimar Irigoien harrijasotzailea eta ondorengo aizkolariak: Otaño eta Mugerza II.a, Mujika eta Otaegiren aurka (euria eginez gero frontoian egingo da).

20:00. Unsain Anaiak trikitilari taldea plazan.

Herensugearen etorrerarekin hasiko dira bihar sanmielak

Herriko jaiak bi asteburutan egingo dituzte; txupinazoa Eladia Balerdi pilotari ohiak botako du bihar arratsaldean

IMANOL GARCIA

Bi asteburu iraungo dituzte Irurako San Miguel jaiak, ohi bezala. Bihar hasiko dira ekitaldiak, herensugearen etorrerarekin eta larunbatean eta igandean jarraituko dute ekitaldiak.

Txupinazoa Eladia Balerdik botako du. 89 urteko emakume honek pilotari bezala herriaren izena mundu guztitik zabaldu zuen, denek *Irura* deitzen baitzioten. Txupinazoa botatzeko gain, udalak omenaldia egingo dio San Miguel eguneko meza nagusiaren ondoren.

Ez da berrikuntza handirik izango festetan. Musika programazioaren aldetik izango da zenbait aldaketa. Ohiko bakarlari baten ordez, Los cinco bilbainos taldea ariko da. Berrietasuna ere izango da Rio Samba Show taldearen emaldia, bigarren asteburuan. Kalejira animatua egingo du talde brasildarrak. Bestalde, gazteei zuzendutako kontzertuak bere horretan darrai, talde ezagunen presentziarekin. Etzi izango da kontzertu hori, herriko plazako eszenatokian, Koma eta Zea Mays taldeekin.

Bihar txupinazoaren eta barrikotearen eguna izango da eta etzi haur eta gazteena. Gazteek bazkaria eta afaria izango dute eta hurrek bazkaria. Ekitaldiz beteta dago egun hori, herriko txikientzat bai gazteentzat ere. Ez dira faltako egun horretan Pirritx eta Porrotx pailazoaren emaldia edo sagardo dastaketa.

Egun garrantzitsua hila-ren 29an izango da, San Miguel eguneari. Egun horretan egingo da parroki eraberritua inaugurazio ofiziala. Gotzaiaren eta Diputazio ordezkariren presentzia espero da.

'18/98 AUZIA' ▶

Adin guztientzako saioak Bat Eginik Egunean

ERREDAKZIOA

18/98 auziko inputatuek eta *18/98+* Lantaldeak bultzatutako Bat Egin Eguna igandean, hilaren 23an, egingo dute Urdaian-Altsasuko San Pedro zelaietan. Egunaren ekitaldien berri eman zuten atzo Bilboko Abando hotelean. Bertan parte hartu zuten igandean Bat Egin Egunean izango direnak. Adin guztietarako ekitaldiak egongo dira egitaraiu zabal batean.

Bi gunek izango dira. Alde batetik eszenatokia eta beste-tik baso animazioa. Gune bakoitzean hainbat ekitaldi antolatuko dituzte: musika, haurrentzako joko eta ikuskizunak, herri kirolak... Bazkari herrikoia ere egingo da. Bestela ere mokaduak hartzeko nahiko aukera izango dute bertara joaten direnek.

Bat Egin Egunearekin «herri bezala erantzutea eskubide zibil eta politikoen urraketa salatzen» da helburuetako bat. Bestea, dirua biltzea auzietan epaiketarako eragindako gastuak ordaintzen lagundu ahal izatea.

EGITARAU ▶

ESZENATOKIAN

10:30. Aurkezpena.
11:00. Pirritx eta Porrotx.
12:00. Urduñako jotoeroak.
12:15. Apurka taldea.
13:00. Ekitaldia.
16:30. Edan taldea.
17:15. Amaiur taldea.
18:30. Eskultura baten zozketa.

JATEKOAK

14:30. Bazkaria (babarrunak edo paella). Kafean, bertsolariak. Egunean zehar Castroko sardinak, Leioako eta Lazkao talogileak eta Urduñako pintxo morunoak.

BASO ANIMAZIOA

▶ 12:00etatik 18:00etara Txikigunea eta 12:00etatik 13:00etara Goloka.
▶ Kukubiltxo, 17:00etan.
▶ Herri kirolak.
▶ Txosnetan Orkestra Nazional musika animazioa.
▶ Kalejira ekitaldira, dauden talde guztiekin, 13:00etan.
▶ Sarrerako pistak Torikagua 12:00etan eta 16:00etan.

ANOETA ▶

Lodosara bidaiari antolatu du Alkartasunak

Alkartasuna biltokitik bidaiari antolatu dute Lodosara urriaren 17rako. Lodosako elizaren bisita gidatua izango dute bidaiariekin eta gero artisau eran egiten duten piper fabrika batetara joango dira. Denborarik izanez gero, azoka ezagutzeko ere aukera izango dute. Bazkideek 21 euro eta ez direnek 24 euro ordaindu behar dituzte, bazkaria barne.

ZIZURKIL ▶

Postontziratze lanak egiteko Udalaren deialdia

Udal bandoak eta jakinarazpenak postontziratze edota kartelak jartzeko, pertsonen zerrenda bat osatu asmo du Zizurkilgo Udalak. Zizurkil-errolatuak eta lehengo lanpostuaren bila edota ikasketak egiten ari diren pertsonak izango dute lehentasuna. Izena-ematea udal bulegoetan egingo da eta azken eguna hilaren 28an izango da.

ILUSIO Kreditua

EUSKADIKO KUTXA

KREDITU ILUSIOA ESKAINTZA

| Epea | Interes nominala |
|---------|------------------|
| 1 urte: | %3,93 |
| 3 urte: | %5,13 |
| 5 urte: | %5,39 |
| 7 urte: | %5,50 |

%5,96 U.T.B.

Irekiera-komisioa: %1
Komisioa alde aurretik amortizatzeagatik: %0
Komisioa alde aurretik kitzatzeagatik: %0
Gutxieneko zenbatekoa: 9.000€

Eskaintza hori lortzeko ezinbestekoa da Nomina helbideratzea eta Euskadiko Kutxaren bizitza-aseguru bat kontratatuta edukitzea, eta bere Aurrezpen, Aurreikuspen edo Pentsio Planetako beste produktuaren bat.

07-05-21etik aurrera egindako eragitetarako eskaintza, 10 milioi eurora iritsi arte. Berritoki finantzatzeko eragiketarako alde batera utzita.

Ez utzi erdizka zure ametsak, bete itzazu gure ilusioen Sailean



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

BALIARRAIN ▶ LOKOTX-BILTZEA

Ez da umeen kontua...

Herri kirolen artean ezaguna da, baina bere jatorria ez dago guztiz argituta

NEREA URBIZU

Herri kirolak Tolosaldean eta Leitzaldean arruntak dira. Festen egitarauen baitan beti dago ikusizun bat. Ez dira horren ezagunak, ordea, Gipuzkoa mailan eta Euskal Herri mailan egiten diren txapelketak, batez ere, lokots biltzearena, edo trontzarena. Aurten Baliarrainen egin dira bi txapelketa handi.

Lokotx-bilketaren jatorriari buruzko baieztapenik ezin da egin, izan ere, idazki nahiz aztarnak urriak dira eta adituek ere ez dute argi. Batzuen ustez, materiala eta jolasaren nondik norakoak ikusita, lokots-bilketak nekazaritzarekin du lotura, uzta-bilketarekin, alegia. Bali-



Gipuzkoako trontza eta lokotx txapelketa jokatu zituzten Baliarrainen. Irudian, Eneko Garmendia lokotx proba gogorrean. HITZA

teke nekazarien arteko lehia sortzea, ea nork bildu artaburu gehiago saskian azkarrago eta, horrela, lana bera ez zitzairen hain nekeza egingo. Modu honetan, eguneroko lana pixkanaka plazan ikusiko zen.

Beste batzuen iritziz, ordea, lokots-bilketak haurrentzako jolas moduan sortu zen. Baserri-tarren seme-alaben jolas gosea asetzeko, gurasoek artaburu-eruei aleak kendu ondoren, saskietan sartuko zituzten; inguruko baserrietara ere helduko zen zaletasuna, gutxinaka bazter guztietara zabaldu arte. Dena den, hipotesiak dira. Badiuzio Ipar Euskal Herrian tradizio handia izan duela lokotx-bilketak eta baliteke han sortu izana.

Gaur egun, haur eta gazte-txoeekin aritzeko herri kirol aproposenatarikoa da. Urteetan zehar irau du lokotx-bilketak, eta denborak aurrera egin ahala, zenbait aldaketa egon dira: materialari dagokionez, esaterako, makiltxoek artaburuak ordezkatu dituzte.

Lokotx-bilketaren arauak

Ahalik eta denbora laburren-ean lokots kopuru jakin bat bildu eta saski batean sartzean datza, lokotxen artean 1,25 metroko tartea utzi. Jokalekuaren gunean partaide bezainbeste saski ezarriko dira. Hauek dira lokotxen neurriak: 14-20 zentimetro arteko luzera; zilindro itxurakoak badira, 2,5-3 zentimetro arteko diametroa. Saskitik 1,25 metrora lehen lokotxa kokatuko da, handik 1,25 metrora bigarrena, eta honela, 25.era arte, bi lerrotan: guztira, 50 lokotx.

Partaide bakoitzak bere otarrean lokotx guztiak jaso behar ditu banan-banan. Sokor bat saskian sartu ez bada, jokalaria ezingo dio hurrengo jasotzeari ekin. Nahi gabe jokalaria batek lokotx bat saskian sartuko balu aurrekoa saskiratu baino lehen, epaileak zigortu egingo luke partaide hori, sartu gabeko sokorra zegoen tokian baino urrunago ezarri. Jokalariak nahi duen ordenean bil ditzake lokotxak.

Baliarraingo txapelketak

Baliarraingo festetan (abuztuaren 15ean) Gipuzkoako lokotx txapelketa eta 1. mailako trontza txapelketa egin zuten. Bertan, Baliarraingo Eneko Garmendia izan zen txapelduna lokotxetan, eta Jokin Garmendia baliarraindarra eta Ikaztegi-tako Unai Iraola trontzetan ari ziren, hirugarren eginez.

ENKO GARMENDIA ▶ LOKOTX-BILTZAILEA

«Ezagunek animatuta parte hartu nuen»

Tarte bat izan du Eneko Garmendiak lokots biltzeari buruz hitz egiteko (Baliarrain, 1981). Bera izan da Gipuzkoako lokotx-biltzailerik azkarrena.

Berria zara honetan?

Bai, aurten lehenengo aldiz hartu dut parte. Futbolearen antzeko izan eta herri kirolen ibili izan naiz, baina besterik ez. Festetako egitarauaren baitan zegoen txapelketa, eta ingurukoek, ezagunek animatuta, azkenean parte hartu nuen.

Asko prestatu zara?

Azken hilabetean hasi nintzen serioago, proba bera egiten, alegia. Frontoian 50 koskol jarri, eta aurreko jokalarien denborak kontuan hartuta.

Iraillean ere beste proba bat.

Bai, zazpi lurraldeetako txapelketa. Atharratzen. Bertan, Nafarroak irabazi zuen eta 10 proba ezberdin egiten ziren. Nik bigarren egin nuen. Urrian Euskal Herrikoa egin beharko dut, Bizkaian.

Nola hobetu proba honetan?

Punteria oso garrantzitsua da,



N. URBIZU

horrela irabazten da denbora. Ni azkarragoa nintzen Atharratzen, baina distantziak oraindik ez ditut besteak bezain ondo kontrolatzen. 6'37ko denboran egin nuen, eta irabazleak 6'22.

Eta etorkizunean?

Ikusten da jendea ibiltzen

dela, baina ez du parte hartzen guztietan. Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian ondo ikusten dut, baina hori ere probaren arabera da, noski. Lokotx-biltzea gogorrenetakoa da, nahiz eta ez dakienak umeen gauza dela esan. 50 lokotx jasotzea azkenean asko da. ◀

hitza

Harpidedunen txokoa

Ibarrako **Alurr** dantza taldeak **bere historia biltzen duen liburua** argitaratu berri du. Liburu honen **4 ale zozketatuko ditugu** gure harpidedunen artean. **Zorte on eta adi egon!**



Gainera, Donostiako **ZINEMALDIRA** doan joateko aukera ere baduzue, izan ere **HITZAK 27 sarrera pare** ditu **zuen artean banatzeko.**

Parte hartzeko, deitu 09:00etatik 13:00etara telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**



OREXA ▶

Diabetesaren inguruan hitzaldia

Uli Mankomunitateak antolatutako eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldietako hurrengo saioa hilaren 26an izango da, asteazkenarekin, 17:00etatik aurrera Oresako Udaletxeko Ganbaran. Kasu honetan landuko den gaia *Diabetes kasuan izan beharreko ardua* izango da. Gaurkotasunezko hainbat gai jorratzea eta eguneroko bizimodurako ohitura eta praktika osasungarriak lantzea da jardunaldi hauen helburu nagusia.

IBARRA ▶

Maite Aranaldi bidaltzeko argazkia

Maite Aranaldi Ibarrrako preso politikoak 25 urte beteko ditu hilaren 24ean, astelehenean, hain zuzen ere. Maite Aranaldi gaur egun Parisen (Frantzia) ondoan dagoen Fresneseko espetxean aurkitzen da. Herritarrek data jakin horren aurrean, argazki herrikoia ateratzeko asmoa eta deialdia zabaldu dute. Hitzordua bihar 19:30erako jarri dute Ibarrrako plazan. Hain zuzen, herritarrek bertan bai eta azken ostiralean burutu den elkarretaratzean ere parte hartzeko deialdia egin dute.

IBARRA ▶

Etxeko lehen porrota Ibarra FSrentzat

Ibarra FS areto futbol taldeak galdu egin zuen denboraldiko lehen partida iragan asteburuan. Ibarreko etxean jokatu arren, 4-5 emaitzarekin galdu zuten Gasteizko (Arabia) Atenea taldearen aurka. Lehen minutuan sartu zuten lehen gola gasteiztarrek eta partida guztian aurretik joan ziren kanpotarrak. Hala eta guztiz ere, amaieran norgehiagoka iraultzeko aukerak izan zituzten etxekoei, 2-5 galtzen joan ondoren. 4-5ekoa lortu baitzuten. Horrela amaitu zen partida.



Maite Aranaldi. HITZA

LEABURU-TXARAMA ▶

Jubilatuena Eguna antolatu dute hilaren 30ean

Azken urteetan bezalaxe, aurten ere Leaburu-Txaramako adinekoentzat jai egun bat antolatzen ari dira Udaleko arduradunek, Jubilatua Eguna, hain zuzen ere. Aukeratu duten data hilaren 30a da, igandearrekin. Bertan parte hartu nahi dutenentzat izena emateko azken eguna hilaren 25a izango da, hau da, datorren asteartean. Horretarako, Udaleria bertara gerturatu edo bertako telefono zenbakira deitu behar da bulego ordutegian: 943 67 59 31ra.

IBARRA ▶

Belabietako kirol ikastaroak aurkeztu dituzte

Ikasturtearen hasierarekin batera, Belabieta kiroldegiko arduradunek 2007/2008 denboraldiko kirol ikastaroak aurkeztu dituzte. Hauek dira eskaintzen diren ikastaroak: Aerobic, Pilates, Yoga eta Spinning. Hauetan parte hartu nahi duenak, Ibarrrako Belabieta kiroldegian bertan eman beharko du izena. Beharpenak izango dira, izan ere, bazkideek merkeago izango dute hiru hilabetetako inskripzioa eta hirugarren adinekoentzat berriz, dohainik izango dira ikastaroak.

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

12 eta 14na urteko kartzela zigor eskaera zazpi inputatuentzat

Dignidad y Justicia elkarteak «ETAren proiektuaren kideztzat» jo ditu; tartean da Martxelo Otamendi tolosarra

ERREDAKZIOA

Dignidad y Justicia 12 eta 14na urteko kartzela zigor eskaera egin du *Egunkaria* auziko zazpi auzipetuentzat. Joxemi Zumalabe (90ko hamarkada hasieran hil zen), Martxelo Otamendi, Juan Mari Torrealdeai, Txema Auzmendi, Iñaki Uri, Xabier Alegria, Pello Zubiria eta Xabier Oleaga «ETAren proiektuaren kideztzat» jo ditu, eta azkeneko zazpi kontrako zigor eskaerak egin ditu Dignidad y Justicia. Lan edo kargu publikorako 14 eta 15na urteko kargu-gabetzea ere eskatu du.

Martxelo Otamendi tolosarraren kasuan, 14 urteko kartzela zigorra erakunde terroristako kide izateagatik, eta lan edo kargu publikorako 15 urteko kargu-gabetzea eskatu dute. Dignidad y Justiciaren ustez, «*Egunkaria* ETAK sortu zuten, 90ko hamarkadaren hasieran erakundearen eta inguruaren finantzaketarako». Fisikaltzak joan den ekainean zio-



Maiatzean auzipetuek agerraldia egin zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak hartutako erabakia gaitzesteko. GORKA RUBIO/ARGAZKI PRESS

enez, «*Egunkaria* eta bere enpresak inoiz ez ziren izan ETA erakunde terroristaren finantzatzeko, ezta honen dirua zuzitzeko ere». Hala, «delitu zantzurik ez dagoelako», auzia artxibatutako eskaera egin zuen. Hala ere, Espainiako Auzitegi Nazionalak epaiketa egingo dela erabaki zuen, baina oraindik ez du jarri eguna.

2003ko otsailen itxi zuten *Euskaldunon Egunkaria* Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz. Guardia Zibila erabili zuten itxeko. Zenbait atxilotutako tortura kasuak salatu zituzten. Operazioan Luis Goia ere atzeman zuten (duela urtebete hil zen). Iñaki Uri eduki zuten gehien kartzelan: 18 hilabetean.

IBARRA ▶ KULTURA



San Bartolome jaietako argazki erakusketa

A. Imaz ▶ Ibarrrako Udala Kultura eta Gazteria sailak 2007ko San Bartolome jaietako argazki erakusketa antolatu du. Erakusketara hurbiltzen diren ikusleak, bertan aurkitzen diren argazkien kopia eskatu ahal izango dute; kopiai eskuratzeko,

prestatu diren eskari orriak betez. Jaietako argazki erakusketa irriaren 14ra bitarte ikus ahal izango da Ibarrrako Kultur Etxean. Ordutegia, asteleheneetik ostiralera izango da, 10:00etatik - 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara. HITZA

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

JUAN BAUTISTA IRAZOKI ▶ LEITZAKO BIKARIOA

«Apaizak edozein bezala gizakiak gara»

Juan Bautista Irazoki 18 urtez Leitzako apaiza izan da; lehengo urtean bikario izendatu zuten eta 18 urteren ondoren herria utziko duenez, hemen igarotako urteen balantzea egin du



N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Juan Bautista bikarioa (Leitza, 1930) 1989. urtean etorri zen Leitzara. Ordutik 18 urte igaro dira, eta orain bide berri bati ekitea suertatu zaio, Betelura joatea egokitu baitaizaio.

Nola gogoratzen duzu zure etorrera?

Ni ilusioz etorri nintzen. Ordu-rarte beti ibilia nintzen bi zatitan bezala lanean: alde batetik, Oronozko kolegioan, aste osoa han egiten nuen eta gero aste-buruan Igantzira joaten nintzen, elizako lanak egitera. Leitzara etortzeko esan zidatenean, pentsatu nuen behingoz gauza batetan jarduteko aukera izanen nuela. Gero nik herriaren oso irudi ona neukan, astebete misioak ematen aritu bainintzen eta gero hiru egunetako ikastaro bat egin genuen herriko gizonekin. Ordu-tik herriaren oso irudi ona nuen. Gainera beti oso ongi hartua izandu naiz. Pozik etorri nintzen eta poliki-poliki hemengo gauzetan sartzen joan nintzen.

18 urte hauek nola deskribatuko zenituzke?

Landa-apostolutzak nire bizitza markatu du, honen helbu-

ELIZA ETA HERRIA

«Nire pentsamendua beti hau izan da, elizako gauzak ahal den hobekien egitea, baina kanpora ere begiratzea»

rua herrietan apaizek nola lan egin behar duten erakustea baita. Gainera, lehen esandako ikastaroan azpimarratzen genuena zera zen, herri batean arazoak baldin badaude elkar hartu behar dutela herritarrek, eta kristauak arrazoi gehiago dituzte hori egiteko, kristau elkarte bezala. Nire pentsamendua beti hau izan da, elizako gauzak ahal den hobekien egitea, baina kanpora ere begiratzea. Horregatik urte hauetan denetan egin dudana eta gero batzuek esanzen dute bazter-nahaslea naizela.

Herri mallan gauza askotan sartuta egon zara urte hauetan, ez?

Bai, guraso elkartean, Elkarri-ekin bilera asko egin ditugu... Bilerekin garrantzia handia izan dute niretzako, elizatik kanpo herriko gauzak jorratzeko. Hauekin denekin, herriko gau-

BETELU

«Beharra dagoen lekura noa, Betelun lan puxka bat badagoela iruditzen zait, baina oraindik osasuntsu nago»

za askotan sartua egondu naiz. Hirugarren munduko kanpo zorrari laguntzeko kanpaina ere egin genuen eta herrian alderdi guztien artean baino boto gehiago lortu genituen. Azkeneko kanpaina, berriz, drogarri buruz egin da.

Leitzako bi abesbatzak ere zuzendu dituzu.

Bai, etorri nintzenean ez nuen uste hor sartuko nintzenik, nire musikako paperak ere ez nituen ekarri. Aurretik Jota Jota zuzendari bezala herriko koruan ibilia zen, eta ni etorri nintzenean zuzendaririk ez zuten. Koruan entseguak egiteko giltza eskatu zidaten, gero konpasa laguntzen eramateko eskatu zidaten. Horrela hasi nintzen.

Korua zeinek zuzenduko ditu hemendik aurrera?

Ainara Rodak bere burua zuzendari bezala eskaini zuen helduen abesbatzarako, baina

SEKULARIZAZIOA

«Lehenago den-dena erlijioaren menpe zegoen eta orain kontrakoa pasatzen da, erlijioaren aurka goaz»

arazoa txikiekin geneukan. Aurten azkeneko kontzertua Katalunian eman dugu, eta han gazteen koru bat dago eta abesbatza horretako zenbait kidek koru txikia eramaten dute. Herrian bakarka inork ez zuen korua eraman nahi, eta azkeneko seiren artean egiten dute. Honek pozten nau, koruak bertan behera gelditzea pena emango lidake.

Koruen etorkizuna nola ikusten duzu?

Ez dakit. Guk urtero izaten genituen krisialdiak, urtero aldatetako baitzeuden. Urtero berri-tzen ibili gara eta aldaketa horrek zertara eramaten dituen jakitea ez da erraza.

Zuretzako ezustekoa izan al da orain Betelura joan beharra?

Bai, proposamena egin zidaten eta nik nire iritziak eman nituen. Apezpikuarekin ere min-

tzatu nintzen eta azkeneko konbentzitu egin ninduen. Beharra dagoen lekura noa, Betelun lan puxka bat badagoela iruditzen zait, baina oraindik osasuntsu nago.

Zure iritzia kontutan hartu dute edo Elizako hierarkiak indar gehiago du?

Azkeneko apezpikuak agintzen ahal ditu, baina normalean, eta kasu honetan ere hala izandu da, kontsulta egiten dute, eta alde horretatik ez dut kezakerik. Nik hasieratik trabak jarri nituen, hitz egin dugu, eta azkeneko konbentzitu egin naute.

Apaizak gizonak bezala ikusi behar ditugu?

Apaizak edozein bezala gizakiak gara eta baldin badugu zerbait gehixeago heziketa da. Zentzu honetan, mediku bat bezala, medikuak senda zaitzake baina bera ere gaixotzen ahal da. Berdintasunari dagokionez eta gure akatsa izandu da, apaiza aparteko bat balitz bezala ikusi dugu beti. Herri guztietan bazen apaiza eta honek agintzen zuen, baina honek ez du horrela izan behar. Apaizaren jarrerarik hoberena da pentsatzea hau kristau elkarte bat dela, eta apaizak elkarte horri zerbitzu bat egin behar diola.

Urte hauetan erlijioaren ikuspuntutik zer bilakaera ikusi duzu?

Sekularizazio handia sartu da azkeneko urteetan. Sekularizazio horrek baditu bere alderdi onak eta alderdi txarrak. Erlijioarekiko independentzi hori positiboa da. Ogia berez ona da, bedeinkatu gabe egon arren. Sekularizazio alde horretatik mesedegarria da. Baina gero erreakzio batzuk sortzen dira. Lehenago den dena erlijioaren menpe zegoen eta orain kontrakoa pasatzen da, erlijioaren aurka goaz eta hau jarrera txarra da. Lehen gaizki eta orain gaizki, eta honek ondorio txarrak ekartzen ditu. Eliza aipatzen dugunean Aita Santuan pentsatzen dugu, edo apezpikuan, baina eliza ez da ez Aita Santua, ez apezpikua, ezta apaiza ere. Eliza kristau elkartea da eta apaizak eta apezpikuak elizaren zerbitzariak dira. Hor akats handia dago eta hori gertatu da mende askotan elizaren zerbitzariak agintariak izan direlako. Jendeak agintariarekin ez du ezer jakin nahi, zehazki izanda ere.

